

Pelegrinazioa

eta *salbamaena graziaren fruitua dela aitortu.

Ik. Jainkoaren grazia; Libertatea; Jatorrizko bekata.

Pelegrinazioa

Ik. Erromesaldia.

Pelikanoa

Kristoren sinboloa, egazti itsastar horrek bere bularra irekitzen omen bait du, bere *odolaz kumeak mantentzeko.

Pena

Justiziazko ekintzaren ondorioz errudunari edo delitugileari ezartzen zaion jasan-kizuna. Jainko juezarekin lotuta dago pena erlijioetan.

Kristau-hizkerak hiru mailatan edo erabiltzen du penaren kontzeptua, zigorraren ikuspegitik: *Zuzenbide Kanonikoan, *sakramentologian eta *eskatologian.

1. Sin.: Zigorra. Elizaren *legea urratu duen fededunari ezartzen zaion zehapena.

2. Penitentziako sakramentuaren parte da: apaizak penitentzileari aitorturiko bekaturen *ordain gisa betetzeko ezartzen dion penitentzia edo hoben-nekea.

3. Bekatuan hildakoari Jainkoak ezartzen dion zigorra, teologia katoliko tradizionalaren arabera hainbat neke-penatan gauzatzen dena. Kristau-teologiaren arabera, heriotzondoko judizioaren bidez ezartzen zaio pena bekatiari: betiko *ifernua ala aldi bateko *garbitokia, katolikoek ustez, bekatu larrian hil ez direnei. Teologia katolikoak bitan banatzen ditu ifernuko neke-penak: kaltearena eta gorputzekoa. Ik. Hilan judizioa; Heriozko bekata; Betiko heriotza.

Penateak

Lareekin batera, erromatarrek gurtzen zituzten izpiritu etxetarrak, etxearen babesleak. Janariaren zati bat horiei eta *lareei eskaintzen zieten oparizat.

Ik. Etxe(ko) gurtza; Etxea; Oparia.

Penitenteak

Penitentzile edo penitentziadunen artean, Elizaren historian zehar izaera berezi-berezia eduki zutenei deritze horrela.

1. Elizaren antzinatean, jendaurreko penitentzia egiten ari zirenak; *liturgi bazarrean besteengandik bereizirik eta soineko aparteko jantzirik egoten ziren penitenteak.

2. XIII-XVI. mendeetan, kristau-kofradia, *prozesiotan beren gorputzak zigortuz ibiltzen zirenak eta urrikimenduzko egintzei atxekitzen zitzaizkienak deitzen zituzten horrela.

Penitentzi(ako) sakramentua

Sin.: Aitortza; Konfesioa

Bihotz-berritu eta bizialdaturiko gizon-emakumeen Jainkoarekiko eta elkarrekiko adiskidetzearen zeinua da penitentzi sakramentua. Norberaren eta gizartearen bizitzan *bekatuak duen zentzuari buruz argi jabeturik egotea beharrezkoa da barkamen-sakramentu horren zentzua hautesateko.

Jainkoarekiko eta, ondorioz, Beragandik datorren edozerekiko, bereziki beste gizon-emakumeekiko, etena da bekata. Era berean, esan beharrezkoa da gure *lagun-hurkoarekiko irain (laido) eta eten oro Jainkoarekiko etena eta iraina (ofentsa) dela, hots, bekata.

Kreazio osoaren sakoneko batasuna, Kristok lorturikoa, hautsi egiten da bekatu egitean, kristau-teologiaren arabera; Hark mezaturiko eta hasitako zulentasun- eta maitasun-Erreinuaren aurkako eraso da bekata. Edozein bekatu dituztenak, horregatik, bere baitan alderdi pertsonalak eta sozialak.

Egoera jakin bat da bekatzekoa; hori gaingidetzeko penitentzia eta bihotz-berritzea eskatzen da. *Bihotz-berrikuntza da, hain zuzen, Jesusen lehen mezua eta eskakizuna (Mk 1,15); berak eskaintzen die bihotz-berrituei barkamena eta Jainkoaren Erreinura sartu ahal izatea (Lk 1,77; Mt 4,17; Lk 5,32).

Aldi berean, Jesus bera da, bere heriotzan eta *piztueran, gizon-emakumeak Jainkoarekin, beste gizakideekin eta diren guztiekin adiskidetzeko ahalbidearen eta gertatzearen funtsezko kausa (Erm 5,11; 2 Kor 18-19; Kol 1,22; Ef 2,6).

Kristok, izadi osoa adiskidetzeari, gaitz guztietatik atera du sustrai-sustraienetik, eta edozein bekatu gaingidetzen duen Jainkoaren Erreinua mezutu du. Adiskidetzeari horren zeinu iraunkortzat ipini zuen Kristok kristau-elkartean bekatuak barkatzeko eta baktezko *ministeritza (Mt 16,19; Mt 18,18; Jn 20,22-23; 2 Kor 5,18), bakoizkako eta elkarrezko izaerarekin. Ik. Adiskidetasuna.

Penitentziako sakramentuaren errotia aldatuz etorri da mendeetan zehar. Lehen mendeetan halako bekatu jakinak barkatzeko bakarrik zen sakramentua beronen jendaurreko tankera kanonikoan, eta bizitzan behin bakarrik har zitekeen. Sakramentua bakarka egiten

tea VI. mendearen azken aldera sartu zen, *monako kelten eraginez.

Vatikanoko II. Kontziliotik hona, penitentziako sakramentuaren pastoraltzako funtsezko alderdiak eraberritu egin dituzte: horren bakoizkako eta elkartzeko izaera adierazteko zeinuak, horrek Bibliian eta teologian duen bazko-bakekuntzaren zentzua (Erm 8,1-13; Gal 3,13; Erm 6), baita horren elizakotasuna ere (Lumen Gentium Konstituzioa, 11).

Galatzak eta gizabanakoaren eta gizataldeen arteko etenak markaturiko gizarte eta Herrietan bizi diren kristau-elkarteentzat zeresan bizia eta sakona du gaur *bakekuntzako sakramentuak. Bide horretatik, bakoitzaren, *elkartearen, gizartearen eta egituraren mailako mugez eta okerreiz jabetzea eta horiek kritikatzeko da bekatuaren aitortzea. Baina norberaren barneko joerak bai gizartearen egitura okerrak aldatzeko erantzukizuna hartu beharra dakar *bihotz-berrikuntzak eta biziberrikuntzak.

Bekatuaren murrizketa guztietatik eta horien ondorioetatik gu ateratzeko eta Berarekin gu adiskidetzeko dagoen Jainkoaren bertakotasunaren itxaropenezko zeinua da sakramentu horretan hartzen dugun barkamena; eta aldi berean, Jainkoaren askatasunezko eta graziazko Erreinuaren mezu eraginkorra ere bai.

Ik. Bekatua; Urrikimendua.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Penitentzilaritza apostolikoa

Penitentzilaritza santua ere deitzen dute.

Erromako *kuriako dikasterioetako bat da: barne-barrutikoetan soilki eskumena duen tribunala eta *barkameneren gauzez arduratzen den saila. Horko buruari penitentzilaria nagusia deritza.

Pentateukoa

Testamentu Zaharreko lehen bost liburuen bilduma: Genesia, Exodoa, Lebitikoa, Zenbakiak eta Deuteronomioa. Juduek Tora deitzen dute. Oraingo idazkuntzara iristeko, aurretiko zenbait dokumentuz eta tradizio idatzigabez baliatu ziren idazle bilduma-egileak.

Ik. Biblia.

Perikopa

Grezieratiko hitza, ebakia adierazten duena. Kristau-Idazteuneko pasarteak izendatzeko erabiltzen da; bereziki *liturgiaren irakurtzen den zati bakoitza izendatzeko.

Exegesian, berriz, literatur unitatea osotzen duen *Bibliako pasarteak da.

Pertsonalismoa

E. Mounier (1905-1950) frantses filosofoak asmatutako hitza, bere filosofia soziala adierazteko. Horren arabera, gizabanakoa ez da banakoa soilik; funts-funtsean, bakoitzak besteekin dituen harremanek egiten dute norbanakoa, giza multzoan suntsituko ez dena. Norbanakoa eta lagun banakoa gizabanakoaren bakoitzaren bi alderdi bereiztezinak dira: banakotasuna eta laguntasuna edo gizartekotasuna.

Filosofia pertsonalista horrek, gizartea eratzeko oinarritzat asmatuak, eragin handia ukan du kristau-pentsatzaileen artean eta teologiaren berrikuntza osoan, bereziki teologia pertsonalista deiturikoan.

Philosophia perennis

Latinezko esakunea, filosofia iraunkorra adierazteko. Hainbat filosofoaren artean eta bereziki eskolastiko berrien artean zabalduarik dagoen eritzia da, filosofoen hainbat irakatsi ezberdinen azpian, funtsezko batasuna dagoela uste duena.

Pietatea

Adiera orokorrean, *jainkotiartasuna edo *elizkoitasuna adierazteko erabili ohi da. Zehazkiago, ordea, erlijiozko arteko irudimota da.

Italieraz pietà esaten da. Michelangeloren eskultura ospetsua da, Ama Doloretakoa edo Andre Maria nahigabetua, Jesus bere seme hila belauraren gainean duela, irudikatzen duena.

Batzutan gai edo zio bera duten irudi guztiak izendatzen dituzte horrela.

Pietismoa

Luteranismoaren barnean XVII. mendean sortutako kristau-bizieraren barne-berrikuntzako mugimendua. P.J. Spener *artzain luterarrak eman zion hasiera, bereziki bere Pia desideria, 1675ean argitaraturiko liburuen bidez.

Protestantismo ofizialaren intelektuallismoaren eta *ortodoxia hotzaren kontra, fedezko barne-bizipena sustatu nahi zuen, *otoitza egiteko eta Bibliaren irakurketa egiteko batzarreen bidez eta *teologiaren irakaspena ere jaierazko bilera bera bihurtuz. Ik. Erlijiozko esperientzia.

Azkar zabaldu zen mugimendua Alemanian.